

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure produktua ekoitzi ahal izateko, lau osagai nagusi behar ditugu. Batetik, plaka metalikoa, RS Components orrian erosiko duguna; bestetik plaketarako kable lokailuen kita, webgune berdinean erosi duguna. Kit bakoitzean 20 kable etortzen dira, beraz hainbat txip egiteko balio digu. Gainera, gure txipa hatz daktilarra hatz marka daukanez hartz-markako sentsoareak erosiko ditugu, Aliexpress dendan. Eta azkenik kontrol-panel bat, RS Components orrian erosiko duguna. Hasieran osagaiak kantitate txikitetan erosiko ditugu; ikusi behar dugu nola joaten da proiektua, eta segun eta zenbat txip saltzen ditugun hasieran, gero eta kantitate handiagoetan erosiko ditugu osagaiak.



Garraioari dagokionez, Insausti SL enpresarekin akordio bat sinatuko dugu. Beraiek arduratuko dira materialak ekartzeaz eta txipak kantitate bat prestatuta daukagunean, CECOTEC, SMEG eta RUSSELL fabriketara eramango dituzte; hauek gure txipa beraien kafetera eta tostagailuetan integratuko dituzte. Beraz kamioiak bi funtzio edukiko dituzte, materialak ekarri eta txipak beste enpresetara garraiatu.

Txipa bakarrik eskuragarri egongo da akordioa sinatu dugun enpresekin, hau da, CECOTEC, SMEG eta RUSSELL. Hauek lehen esan bezala gure txipa bere produktuak sartu eta salduko dituzte. Beraz gure txipa ez da salduko bakarrik baizik eta beste gailu batzuekin; hala nola kafetera eta tostagailuetan. Enpresa hauek diru kopuru jakin batean salduko dituzte tostagailuak eta kafeterak. Ondorioz enpresak zenbat saltzen duten arabera banatuko dugu dirua. Beraz hilabate guztietan ez dugu diru kopuru berdina irabaziko.

Lehendabizi hiru enpresa hauei salduko diegu, baina ikusten badugu gure txipa arrakastatsua dela eta ondo funtzionatzen duela beste enpresa batzuekin akordioak sinatuko ditugu, horrela gure produktua mundu guztian ezaguna izatea da gure helburua.

Enpresa hauekin harreman onak izango ditugu; hau da, irabazten dugun dirua ondo banatuko dugu, harremanetan jarriko gara asteen bitan hitz egiteko gauzak ondo ateratzen ari diren... Beraiek dira gure bezeroekin harremanak izango dituztenak beraz behar dituzten

produktuak, materialak... etab eskainiko dizkiogu. Publizitatea egiteko youtuberrak eta influentzerrak kontratatu ditugu, horien artean Daniel Illescas, Dulceida.... daude. Hauei ere ordaindu behar diegu eta enpresa guztien artean egingo dugu zeregin hori.